



COVID-19AREN OSASUN- ZAINTZAKO EGOERAN KIROL- LEHIAKETAK EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Kirolaren munduko hainbat sektorek Eusko Jaurlaritzari 2020ko lehiaketak baimentzeko egin dioten eskaeraren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Osasun Sailari eta Osasun Publikoko Zuzendaritzari kontsulta egin ondoren, horiek antolatzeko eta egiteko bete beharko diren baldintzen berri ematen die lehiaketa horien antolatzaileei.

Covid-19aren gaixotasuna dela eta Euskadin dagoen osasun-zaintzako egoeran, erakunde antolatzaileek lehiaketa garatzeko protokolo bat eman beharko diete erakunde eskudunei, higiene- eta urruntze-neurri guztiak, eta agintariak ezarritako beste edozein arau beteko direla bermatzeko. Udal-agintariei dagokie lehiaketak egiteko baimena ematea, eta, hala badagokio, beste erakunde batzuen beharrezko baimenak eskatuko dira, hala nola Segurtasun Sailekoa, kostaldea...

Erakunde antolatzaileek honako irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Erakunde antolatzaileek osasun arloko prebentzio eta segurtasun neurri guztiak zorrotz bete beharko dituzte.
- Lehiaketa egunetan, erakunde antolatzaileek arreta berezia jarri beharko diete lehiaketaren aurreko

CONSIDERACIONES PARA LA EVENTUAL CELEBRACIÓN DE COMPETICIONES DEPORTIVAS EN SITUACIÓN DE VIGILANCIA SANITARIA POR EL COVID-19

Ante la solicitud que diferentes sectores del mundo del deporte han realizado al Gobierno Vasco para la autorización de las competiciones de 2020, la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco, tras consulta con el Departamento de Salud y su Dirección de Salud Pública, informa a las y los organizadores de dichas competiciones de las condiciones que habrán de cumplirse para su organización y celebración.

En una situación de vigilancia sanitaria como la que se encuentra Euskadi debido a la enfermedad del Covid-19, las entidades organizadoras deberán entregar a las instituciones competentes un protocolo de desarrollo de la competición que garantice el seguimiento de todas las medidas de higiene y distanciamiento y cualquier otra norma establecida por parte de las autoridades. La autorización para la celebración de competiciones corresponderá a las autoridades municipales, y en su caso se solicitarán los permisos necesarios de otras instituciones, tales como el Departamento de Seguridad, costas,...

Las entidades organizadoras estarán obligadas a cumplir los siguientes criterios:

- Las entidades organizadoras se obligan a extremar todas las medidas preventivas de salud y de seguridad sanitaria requeridas.
- En las jornadas de la competición, las entidades organizadoras deberán



eta ondorengo fase guztietako segurtasun- eta osasun-neurri guztiei (kirolariak lehiaketa egingo den udalerrira iristea, ikusleen kontrola eta pilaketak, kirolarien arteko distantziak, dopingaren aurkako probak egitea, etab.). Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantenduko da, eta distantzia hori mantentzerik ez badago, nahitaezkoa izango da maskarak erabiltzea, kirolarien kasuan izan ezik, beroketak egiten ari direnean edo lehiaketaren unean.

prestar especial atención a todas las medidas de seguridad y salud en todas las fases previas y posteriores a la competición (llegada de las y/o los deportistas al municipio donde se celebrará la competición, control de público y aglomeraciones, distancias entre las y/o los deportistas, realización de las pruebas antidoping, etc.). Se mantendrá la distancia interpersonal de 1,5 mtrs y siempre que no se pueda mantener dicha distancia será obligatorio el uso de mascarillas, salvo en el caso de las y los deportistas en el momento del calentamiento y la competición.

- Debekatuta dago jarduera ludikoak edo merkataritzako jarduera paraleloak antolatzea.
- Erakunde antolatzaileek neurriak behar bezala betetzeaz arduratuko den osasun arloko pertsona baten, edota antolatzaileak berariaz arlo horretara bideratuko duen pertsona baten, ikuskaritzapean jardun beharko dute.
- Kirolarientzako neurriak:
 - Antolatzaileek osasungintzako profesional bat edota berariaz arlo honetara bideratutako pertsona bat izango dute, parte hartzaileek honako neurri hauek betetzen dituztela bermatzeko:
 - 12 ordutik behin tenperatura hartzea kirolariei eta haiekin harremanetan dauden teknikari guztiei, eta arreta berezia jartzea sintomatologiaren agerpenari.
 - Kirolariek nahiz talde teknikoko kideek lehiaketatik kanpo
- No estará permitida la organización de actividades lúdicas o comerciales paralelas.
- Las entidades organizadoras deberán actuar bajo la supervisión de una o un profesional sanitario, o en su defecto de una persona designada expresamente para esta tarea, que se responsabilice del correcto cumplimiento de las medidas.
- Medidas para las y los deportistas:
 - La organización tendrá una o un profesional sanitario o en su defecto una persona responsable designada expresamente para esta tarea, para garantizar que las y los participantes cumplan los siguientes requisitos:
 - Toma de temperatura cada 12 horas a las y los deportistas, así como a todo el personal técnico que esté en contacto con las y los deportistas, y especial atención a la presentación de sintomatología.
 - Distancias y uso de mascarillas fuera de la competición, tanto por



- maskarak erabiltzea eta segurtasun distantzia errespetatzea.
 - o Covid-19aren balizko fokuen jarraipena egitea kirolarien hurbileko eremuetan (bizi diren herria, lantokia, familia, etab.), Osasun Sailak herritar guzientzat ezarritako irizpide orokorren arabera.
 - o Covid-19aren sintomatologia antzemanaz gero, osasungintzako profesional arduradunak edota berariaz arlo horretara bideratuta dagoen pertsonak, Osakidetza zerbitzuetara bidaliko du kasua, osasun publikoko protokoloak aplikatzeko.
 - o parte de deportistas como por parte de miembros del equipo técnico.
 - o Seguimiento de eventuales focos del Covid-19 en entornos próximos a las y los deportistas (localidad donde viven, su centro de trabajo, familia, etc.), de acuerdo a los criterios generales establecidos por el Departamento de Salud para toda la ciudadanía.
 - o En caso de detectarse sintomatología del Covid-19, la o el profesional sanitario responsable o la persona expresamente designada para esta tarea, derivará el caso a los servicios de Osakidetza para la aplicación de los correspondientes protocolos de salud pública.
- Ikusleentzako neurriak (ekainaren 22tik aurrera indarrean egongo den araudiaren zain; aldaketak izan ditzake):
 - o Gune itxi batean denean, aulkiak edo eserlekuak zenbakitu egin beharko dira, behar den distantzia gordez, eta inoiz ezingo da instalazioaren edukieraren % 60 gainditu, ezta 600 pertsona baino gehiago bildu ere.
 - o Aire zabaleko lehiaketetan, ikusleak eserita egon beharko dira, eta behar den distantzia gorde beharko dute; ezingo da baimendutako edukieraren % 60 gainditu, ezta 1.000 pertsona baino gehiago bildu ere.
 - o Ikusleak ezin dira zutik egon, ez instalazio irekietan, ez itxietan.
 - o Harmailetan, komeni da une bakoitzean erabili ezin diren eserlekuak markatzea, eta
 - Medidas para el público (pendiente de normativa que entre en vigor a partir del 22 de junio, y sujeto a modificaciones):
 - o Cuando el espacio sea cerrado, las sillas o butacas tendrán que ser numeradas, guardando la distancia necesaria y nunca se podrá superar el 60% del aforo de la instalación, ni reunir a más de 600 personas.
 - o En competiciones en espacios al aire libre el público deberá permanecer sentado, guardando la distancia necesaria, no podrá superarse el 60% de aforo autorizado, ni reunir a más de 1000 personas.
 - o No se admitirá público de pie ni en instalaciones abiertas ni en cerradas.
 - o En las gradas es aconsejable marcar los asientos que no se pueden utilizar en cada momento, también los espacios en las



baita eserlekurik gabeko
harmailetakokuneak ere.

- o Era berean, ahal den guztietan, noranzko bakarreko zirkulazio-ibilbideak finkatzea gomendatzen da, bai gunean bertan, bai sarbideetan eta irteeretan.
- o Erakunde antolatzailea arduratuko da sarreran eta irteeran jende-pilaketak saihesteaz, eta uneoro ziurtatuko du sarrerak eta irteerak modu antolatuan egiten direla, pertsonen artean ezarritako distantzia fisikoa mantenduz eta maskarak erabiltzen direla bermatuz.
- o Erakunde antolatzaileak, edozein ekitaldi egin aurretik, sakon garbitu eta desinfektatu behar ditu ikusleen eserlekuak, komunak eta ikusleekin kontaktuan dauden espazio guztiak.
- o Erosteko bide nagusi gisa, sarrerak Internet bidez saltzea sustatuko da, eta contactless txartelarekin ordaintzea gomendatuko da (PINa sartu gabe). Gomendatzen da berariazko zerbitzu bat aurreikustea, sakelako telefonorik edo ordainketa-txartelik ez duten edo gaitasun digital nahikorik ez duten erabiltzaileentzat; kasu horietan, telefono bidezko salmenta gaitu daiteke. Sarbidea kontrolatzeko sistema bat ezarriko da, sarreren irakurketa elektronikok bidezkoa, bertaratutako langileen zein pertsonen segurtasuna bermatzeko.

gradas sin asientos.

- o Igualmente, siempre que sea posible, se recomienda fijar unas rutas de circulación de sentido único, tanto en el recinto como en los accesos y salidas.
- o La entidad organizadora se responsabilizará de evitar aglomeraciones tanto en el acceso como en la salida del público asegurando en todo momento que se realizarán de forma ordenada, manteniendo la distancia física establecida entre personas y el uso de mascarillas.
- o La entidad organizadora deberá realizar una limpieza y desinfección exhaustiva de las localidades destinadas al público, de los aseos y de todo el espacio que tenga contacto con el público previa a la realización de cualquier evento.
- o Se fomentará, como vía principal de compra, la venta de entradas por internet y se recomendará el pago con tarjeta contactless (sin introducir PIN). Se recomienda prever un servicio específico para aquellas personas usuarias que no dispongan de móvil, o de tarjeta de pago o carezcan de competencias digitales suficientes; en estos casos puede habilitarse la venta telefónica. Se establecerá un sistema de control de acceso mediante lectura electrónica de entradas que garantice la seguridad tanto del personal como de las personas asistentes.



- o Taberna-zerbitzua gaitzen den instalazioetan, sektore horretarako indarrean dauden segurtasun-murrizketa eta neurri guztiak mantendu behar dira.
- o En aquellas instalaciones en las que se habilite el servicio de bar, mantener todas las restricciones y medidas de seguridad vigentes para este sector.



Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 19an.

KULTURA ETA HIZKUNTZA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA